

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko urriak 3

Usurbil, 27. Zenbakia



**Usurbilgo zerga  
eta tasak aztertuz**

**HILDAKOAK**



1997-09-18  
**Carlos Prados Herrero**  
82 urte.  
Goiko kalea

**EZKONTZAK**

**Jon Soroa Udabe (Usurbil)**  
eta  
**Maite Aguado (Beasain)**  
(1997-09-06)

**Carmen Astigarraga Sanchez (Usurbil)**  
eta  
**Juarez-Caesar Malta Sobreira (Salamanca)**  
(1997-09-18)



Urte hasieran banatu genizuen Noaualren egutegia ongi begira ezazue. Izan ere, Urriko hilabetea gaizki dago. Urriak 1 asteazkena izan zen eta gure egutegian astear-te bezala agertzen da. Hortik aurre-ra hilabete osoa gaizki dago. Adibidez, San Praixku eguna larun-batean da eta ez ostiralean. Azaroa eta abendua, ordea, ondo daude. Barkatu beharko diguzue akats hau.

**EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA**

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.10	07.35	07.55	07.40	07.00	07.25	07.30	07.55	08.15
07.40	08.05	08.25	07.10 *	07.20	07.45	08.30	08.55	09.15
08.00	08.25	08.45	07.15	07.35	08.00	09.30	09.55	10.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	10.30	10.55	11.15
09.00	09.25	09.35 *	07.45	08.05	08.30	11.30	11.55	12.15
09.40	10.05	10.25	08.15	08.35	09.00	12.30	12.55	13.15
10.40	11.05	11.25	08.45	09.05	09.30	13.30	13.55	14.15
11.05	11.30	11.40*	09.15**	09.25	09.50	14.30	14.55	15.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	15.30	15.55	16.15
12.40	13.05	13.25	10.20**	10.30	10.55	16.30	16.55	17.15
13.05	13.30	13.40 *	10.40	11.05	11.30	17.30	17.55	18.15
13.40	14.05	14.25	11.45	12.05	12.30	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	12.20 *	12.30	12.55	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.35**	12.45	13.05	13.30	20.30	20.55	20.15
15.40	16.05	16.25	13.45	14.05	14.30	21.30	21.55	21.15
16.40	17.05	17.25	14.25**	14.35	15.00	22.30	22.55	22.15
17.05	17.30	17.40**	14.45	15.05	15.30			
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.25**	16.35	17.00	07.00	07.10	07.35
19.40	20.05	20.25	16.45	17.05	17.30	07.45	08.05	08.30
20.00	20.25	20.35**	17.45	18.05	18.30	08.45	09.05	09.30
20.30	20.55	21.15	17.45	18.05	18.30	09.45	10.05	10.30
21.40	22.05	22.25	18.25**	18.35	19.00	10.45	11.05	11.30
22.00	22.25	22.45	18.45	19.05	19.30	11.45	12.05	12.30
			19.45	20.05	20.30	12.45	13.05	13.30
			20.45	21.05	21.30	13.45	14.05	14.30
			21.15	21.35	20.00	14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

\*Orioraino bakarrik

\*Orietik irtetzen da

\*\*Aiaraino joaten da

\*\*Aiatik irtetzen da

Urriak 6tik 12ra Donostian Munduko Txirindularitza txapelketa jokatu da denok jakingo duzun beza-  
la. Usurbildik irteteko ez da arazorik izango. Donostia edo Irun nahiz Tolosa aldera joateko N-1a  
(Tolosatik Irun aldera doana) irekita egongo da. Entrenamendu edo laisterketa orduetan karril bat  
bakarra egongo denez Lasarte Oriatik sartu beharko da N-1 autobidera, eta ez Irubidetik.

**Bai, esan?**

- |                          |          |                            |          |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala                  | 37 19 51 | • Taxi geltokia            | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa           | 36 11 12 | • D.Y.A.                   | 46 46 22 |
| • Anbulategia            | 36 20 13 | • Gurutze Gorria           | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola      | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza       | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 95 | • Gure Elkartea egoitza    | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia      | 37 24 98 | • Arrate egoitza           | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola  | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa   | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia    | 37 20 01 | • <b>Noaua!</b> aldizkaria | 36 03 21 |

# Zer irizten?

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua!  
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,  
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.  
e-mail:  
Noaua.mandio@redestb.es

**Zuzendaria:** Olatz Altuna.

**Kazetariak:** Ainhoa Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.  
**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari  
Matxain, Nere Amenabar, Ines  
Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain,  
Begoña Zubiria, Amagoia  
Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves  
Aranburu, Luis Aranalde eta  
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**  
Arantxa Usarralde, Aitor  
Pikabea eta Nerea Kamino.  
**Erredakzio Kontseilua:** Olatz  
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo  
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa:** Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio  
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-  
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola,  
**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza,  
Industrialdea 1 - 2, 20.160  
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak  
ez du bere gain hartzen aldiz-  
karian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik.

**PORTADA: Zabor biltzai-  
leak lanean. Zerbitzu  
honen truke ordaintzen  
dute herritarrek tasa**



**Ehiza: pasioa, artea, kirola**

**Tomas Rodriguez**

**Ehiztaria**

**E**hiztariori ere **Noaua!**n  
hitz egiteko edo idazte-  
ko garaia heldu zaigu!  
Nola ez bada, egokitu ere  
urrian egokitu behar, ehizta-  
rion hilean.

Badakit ehizaz hitz egitea  
konplexua dela, defenda-  
tzaileak eta aurkakoak eduki  
baititzake, bi aldeetatik ere  
ugari gainera. Nik uste dut  
ehiza txikitatik sentitu behar  
dela, gure belaunaldiko ehiz-  
tari gehienoi gertatu zaigun  
bezala. Zein ehiztarik ez du  
gogoratzen bere aita ehizta-  
ria sukaldeko epelean murgil-  
tzen negu gorriari ihesi, ehiza  
tortoka gerritik zintzilik zuela.,  
Baina azkenaldian atzeman  
daitekeenez, pasio hau  
gutxituz joan da belaunaldiz  
belaunaldi.

Gazteria gehienak ez du  
ehizerako grinik sentitzen,  
nahiz eta administrazioak ere  
gauzak ez erraztu. Gure  
garaian lur libre asko zegoen,  
eta gaur egun, Euskal Herrian  
izan ezik, lur libre guztiak  
mugatu egin dira. Ondorioz,  
ezin da ehizik egin ordaintzen  
ez bada.

Hala ere zaila da ehizarekin  
amaitzea interes haundiak  
daudelako bere atzean:  
armak, ostatua, barrutiak,  
jatzeko arropa eta abar.  
Orain dela gutxi ehiztariak  
usoaren kontrapasaren ingu-  
ruko auzia zuten eta ehiza  
mota honen aldeko eraba-  
kia eman du epaileak.

Euskal Autonomia Erkide-  
goa da ehiztari gehien  
dituen komunitatea biztanle  
kopuruaren arabera, baina  
ehiza gehien duena ez, Ara-  
ba izan ezik. Udazkenean  
uso-pasa eta birigarrotarako  
ohitura haundia dago. Hala  
ere, nire ustez ohitura herri-  
koiena txakurrekin oilagorre-  
tara joatearena da. Hau  
dugu ehiza mota jatorrena.

Egia da ehizean beti gehie-  
gikeriak egin izan direla,  
baina gaur egun gehiago  
errespetatzen dela uste dut,  
nahiz eta beti egon salbues-  
penak. Ehiztariok naturaren  
eta ingurugiroaren defenda-  
tzailerik haundienak izan  
behar dugu natura bera  
aprobetxatu nahi badugu.  
Ea egia den.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**355**  
barkide ditu  
**Noaua!**ak.  
Zu ere egin zaitez  
barkide

**OHITURA ALA KONTZIENTZIA?**

Hona hemen, denbora laburrean, bata bestearen ondoren gertatutakoak.

Egun bateko goizean, lantegira aurretik zortziak aldera, ohizko buelta-txoa eman nuen Udaletxera, eta bertako langile batzuk "españoloz" hitz egiten harrapatu nituen; lurjota utzi ninduten. Egundoko ezustekoa izan zen hori niretzat, zaplasteko galanta hartuz.

Beste egun batetan, handik denbora ez luzera, Noaua! aldizkariaren idazle eta informatzaile horietako bat topatu nuen, hau ere bere lagun euskaldun batekin, jo eta ke "españoloz" ari zelarrik; elizaldeko petrilean denbora luzean jo zuten eserita, baina arestian aipatu bezala, kanpotar hizkuntzan; ez gurean. Ausardiaz eta gogoz heldu ere heldu zioten kaltegarritzko beren jarrerari; ez zitzairen aho-korapilorik sortzen norbait inguratzeari. Lasaiki aritu ziren.

Eta azkenik, zazpi-zortziko lagun talde bat, beren arteko hizka-mizkan edota kontu-kontarian "españoloz" atzeman nuen; talde oso-oso ari zen horretara, nahiz eta, guztiok euskaraz ondotoxo zekiten; hala ere, norbaitek neure presentzia erreparatzean, eta beren ondotik pasatzean,

euskaraz bospasei hitz altuago bota zituen ohar gisa; piska bat aldendu nintzen bezain agudo, ordea, "lengua cervantina" marabiloso horretara pasa ziren, ostera.

Hauexek, hortaz, aldi ezberdinetako pasarte kezagarriak; alabaina, are gehiago kezkatzen gara pertsona horien izaera ezagutzean; pertsona horien, bakoitzaren, pentsamolde eta ideologi jarrerak ikustean; ez baita bidezko beren buruak euskaldun-abertzaleztat hartuz, gerora gisa horretara aritzea: itxuraz bestelakoa delako, benetan.

Eta horko guztiak abertzale muturrekoak omen; abertzale "gogor" horietakoak, gure hizkuntzari-euskarari-hain nabarmenki eta apropos muzin egiten diotelarik ere; eta, kontuz esan bestelakorik!: suak hartuta txinpartaka hasiko liriateke-eta. Txinpartaka lau haizetara barreiatzen, amorruren amorruez.

Hau guztia, ordea, berezko ohitura txarra dutelako omen; ohitura hitza hartu dute, aitzaki beren okerraren justifikagarri eta estalgarri; ohitura hitza eskuratu, inolako argudiorik ezean, beren buruak zuritzeko; ohitura horren gaitzapean daudelako egiten dute, agidanez, oker; ez asmo

edo gogo txarrez. Jakinal, nola bestelak!

Duela, jada, urte mordoskatik hona, ezin hobeki etorri zaie eta erabili dute "ohituraren" arrazioa beren arrazoikeria justifikatzeko, eta aurretik ere lasai asko beste hainbeste egingo dute: ez dutelako asmo kaxkarrenik beren buruak zentzatzeko. Inolaz ere, ez nator bat arrazoi horrekin; ez nator bat, eta kokoteraino nago, sartu diguten, eta oraindik, bederen, sartu nahi diguten ziri horrekin; arrazioa zeharo bestelakoa baita, oso bestelakoa: borondate eta kontzientzia falta itxuragabea dutelako; eta ez beste.

Beharrik, beste batzuegan-adinan edo asko xamar sartutakoan, bederen- ikusi izan dugu bestelakorik; bai horixe! Euskara ikasteaz gain, erabiltzen eta idazten, esaterako, eta nola erabili eta idatzi gainera! Guztiok harritzeko moduan. Hau guztia, ordea, benetan jokatu zutelako; kontzientziaren eta borondatez jokatu zutelako.

Hortaz, ohitura ez da gakoa, borondate eta kontzientziaren falta baizik.

**Xabier Pikabea**



*Ez ziren asko kejavu errebote jokalaria pasatzen irailaren 21ean bikote hau arbitro bezala horrela azaldu zirenean. Noski, Zubietan Euskal Jaia ospatzen ari ziren eta egunak zerbait berezia behar zuen. Jokatuak bi partiduetan ez zen inolako istilurik egon. "Uniformeak" errespetua emango ziren nonbait!*

**xabier**  
**aritzegia**

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

**URTINEA**  
**LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
 Tlf. 36 22 55

**BARATZA**  
**FRUTADENDA**

*Aukera zabala zure eskura*

Eguzkitza, 4 USURBIL  
 Tlf. 36 49 81

# Berriketan



## RAMON IPARRAGIRRE ALKORTA

Zubietako "Kale" baserrian jaioa dugu abenduan 54 urte egingo dituen gizon hau. Gaztetatik hasi zen bere kirolrik kuttunenean jokatzeko: errebotean. Horretaz gain, "Lagun" bere zakurrarekin oilagorretara joatea du zaletasunik haundiena.



### Non zabilta lanean?

15 urterekin eskolak berak aurkitu zidan lanpostua Ingemarren bulegoetan. Ez nintzen izan punta puntako ikaslea baina txar-txarra ere ez. 19 urte nituela, berriz, enkargatu egin ninduten eta harez geroztik hor jarraitzen dut, ia 39 urte.

### Errebotean ibilia omen zara.

Bai, gure garaietan Zubietan lanaz gain ez zegoen egiteko gauza haundirik. Beraz, ia gazte guztiek jokatzeko genuen errebotera, baita bolotetan ere. 17 urte nituela hasi nintzen jokatzeko xextarekin, eta horrela jarraitu nuen 34 urtera arte.

### Eta nortzuk osatzen zenuten taldea?

Normalean Errekondotarrek eta hiru anaiok jokatzeko genuen. Gogoratzen naiz orain jokatzeko ari diren Endika Abril txapelketa guk ere jokatu genuela; bigarren geratu ginen.

### Nola gogoratzen duzu final hura?

Billabonaren aurka jokatu genuen beraien herrian. Nik "de reves" oso ondo jokatzeko nuen, eta hori ikusita, hango plazan horrela jokatzeko ezin zela jartzen zuten pankartak azaldu ziren egun hartan. Baina Federazioak baiezkota eman zuen. Baina galdu egin genuen.

### Eta nola ikusten duzu orain errebotearen etorkizuna?

Izugarrizko poza sentitzen dut hainbeste gazte errebotean jokatzeko ikusten dudanean. Nire ustez inoiz ez da egon, nik ikusi dudanez behintzat, hainbeste jokalarik eta hain gazteak. Niretzat errebotearen etorkizuna orain hobea da.

### Gustatuko al zitzaizukeen pelotari profesionala izatea?

Begira, 17 urte nituenean Markinatik etorri zen gizon bat gure aitarekin hitz egitera. Markinan puntan jokatzeko eraman nahi ninduen, gero Ameriketara jokatzeko. Baina gure aitak ezezkoa eman zion eta nire bizitzako pena izan da hori.

### Eta bolotetan, zer moduz?

Askoz ere gehiago gustatzen zitzaidan errebotean, baina horretan ere jokatzeko nuen. Gogoratzen dut nola 16 urterekin Trinitate plazan jokatu zen gazteentzako txapelketa batean irabazi nuen. Lehen Zubietan asko jokatzeko zen, urtean zehar hiru edo lau bolo-premio zuden. Santiotan denek parte hartzen zuten, San Inazio egunean, berriz, zubietarrek soilik, eta saltsa ederra egoten zen han.

### Lastima orain hainbeste ez jokatzeko.

Bai, zeren lehen auzo bakoitzak zuen bere bolatokia. Hala ere, ez zen izango beste auzorik Zubietan adinako bola afiziorik izango zuenik. Garai batean bolatokia Jose Antonio Iturbek zaintzen zuen, Zizurkildarra berez, baina gero Zubietara bizitzera etorri zena. Hura hil zenean, Jose Antonio Arroyok zaindu zuen, baina orain badira zazpi edo zortzi urte zaintzen ez dela.

### Ehiztari amorratua ere bazara, ez da?

Bai, baina hamar urtetik hona oilagorretara bakarrik joaten naiz Nafarroara. Azarotik otsailera bitartean, igande guztiak ehizean pasatzen ditut. Sakratua da hori. Lagunekin eta "Lagun" zakurrarekin joaten naiz; anaia bezalakoa da niretzat.

**USURBIL**  
O P T I K A



***Udazkeneko eskaintza tentagarria!!***

Eguzkitako betaurrekoak %10 eta %20eko deskontuarekin  
Lentilen likidoa %17ko deskontuarekin

Irazu kalea, 9-11. Usurbil  
Tlf. eta Fax a: 37 02 69 (Gipuzkoa)

## ZUBIETA



**Xabier  
Arregi**

**Primerako giroa Euskal  
Jaian**

**I**railaren 21ean **Euskal Jaia ospatu zuten Zubietan.**

Goizetik hasita ez zen girorik falta izan, erreboteko bi partiduek ederki berotu baitzuten jendearen animoa. Eguerdialdera, berriz, eta hamaiketako ederra egin ondoren, boloen txanda iritsi zen. Batek baino gehiagok komeri ederrak izan zituen boloa altxatu eta bere bidetik eramateko. Garai batean ibiliak, noiz edo behin jarduten dutenak eta inoiz boloa eskuetan hartu ez zutenak, guztiak gustora ibili ziren bolo tokian. Tokak ere jende asko hurbilduarazi zuen, eta noski, bi joko hauetan sortu zen partaideen arteko saltsa haundiena. Herri bazkariaren ondoren, herrikideek prestatutako antzerkia ikusteko aukera izan genuen. Izan ere, **Izaskun Zubiriak** zuzenduta, ikuskizun bikaina eskaini ziguten **Kimu Berriak** taldeko partaideek. Antzerkiaren ostean dantzarien saio polita ikusi eta zaldi eta mando probak eman zion amaiera aurtengo Euskal Jaiei.



## AGINAGA



**Iratxe  
Begiristain**

**4. saria Joxe Azurmendi  
aginagarrarentzat**

**J**oxe Azurmendiri zorionak eman beharrean gaude. Aginagar honek egurrez hainbat eta hainbat gauza egiten ditu eta oraingoan lan horrek bere fruitua eman du. "Certamen Vasco Navarro"ko jubilatuek Donostian, lehen gobernu militarra zen erakuntzan, erakusketa antolatu zuten. Bertan, jubilatutako ugarik aurkeztu zituzten beren lanak. Joxek egurrez egindako tolaera, erriberako tresnak, harotz-tresnak eta belar-gurdia eraman zituen besteak beste. Azkenean, talla txapelketaren barruan lortu zuen 4. saria. **Zorionak** berriz ere **Joxe Azurmendiri**.

Bestalde, aurreko aleko gaia jorratuz, Aginagako eskola txikiaren arazoa konpontzeko ahaleginetan ari dira une honetan. Badirudi, elizaren lokaletara pasatzeko erabakia hartua dagoela, baina guraso taldea eta eliz taldea ez dira oraindik adostasun batetara iritsi.

Azkeneko utzi dut onena, San Praixkuak gainean baititugu. Urriaren 3an hasi eta 12a bitartean jai giroa nago-



situko da gure artean. Oilasko biltzaileek urteroko ibilbidea egingo dute, umeen eguna ere ez da faltako... Ah, ia ahaztu zitzaidan! Urriak 5ean egingo den sokatira txapelketarako prestakuntzan ikusi ditut aginagatar batzuk; beraz argi ibili aginagarrekin. Besterik ez, aginagarrei jai zoriontsuak opa dizkiet, bertako ekitaldietan parte hartuz eta falta direnak, gure artean ez ditugunak, gogoan hartuz.

## ATXEGALDE



**Amagoia  
Mujika**

**Udarregi ikastolako  
plaza margotu dute**

**I**railarekin batera Udarregi ikastolako haurrek, jadanik ahaztua zuten ikastolarako bidea hartu behar izan zuten. Autobusa alde batetik, umea bestetik... guk ere ahaztua genuen zer zen hori.

Aurtengoan, jolastokia inoiz baino politago dute gainera. Udar honetan Usurbilgo "zezen plaza"ren hormak margotu dituzte. Alde batetik bestera, paisaia polita pintatu dute eta ziur nago ikasleak gustora irtengo direla jolastokira, duda izpirik ez eduki.

Atxegaldeko urbanizazioaren bigarren fasearen ohiartuzuna entzun dugu aspaldiko partez. Lehen lanak zatika egin nahi ziren, orain aldez dena batera egiteko asmoa omen dute. Lan hauek egiten aurrean hasi nahi dutela ere entzun dugu. Ea ba entzundakoa egi bihurtzen den.

**SANTUENEA****Alfonso Vidal****Hautsa, lokatza, kamioiak...**

**E**z da harritzekoa. Alde batetik eguraldi ona; azken hilabete honetan ez du apenas euririk egin eta eguzkiak gogoz jo du goizetik ilunabarrera. Beste aldetik, Santuenea bidean lurra dararamaten **kamioien sartu-irtena etengabea** da.

Atalluko lanak hasi zirenetik kamioi festa dugu santueneatarrok. Urdaiaga aldera joaten dira lehendabizi, han kargatu eta Atallura eramaten dute



eraman beharrekoa. Urdaigatik Santueneara joateko **bidea hautsez bete**a dago eta Atallu aldea zer esanik ez.

Hala ere bide berria egingo digutela eta gustora egon behar. Momentuz antzeman daiteke bide berri horren nondik-norakoa. Horregatik kamioi, lokatz eta hauts guzti hori jasan beharko ditugu gauzak hobetuko direnaren esperoan. Lehenago itotzen ez bagara nozbait pasako gara bertatik-.

**KALEBERRI****Ines Kamino****Eguzkitzaldean 2. faseko obrak egiteko behin behineko baimena**

**E**guzkitzaldeko eraikuntza lanak aurrera doaz poliki-poliki. Lehen fasean egin beharreko bi etxeak bukatu gabe egon arren **Mendigain Inmobiliariak bigarren faseari ekiteko baimena** eskatu du ja. Bigarren fase honetan beste **42 etxebizitza** eraikitzeko asmoa dute Bustinzulo aldean. Honekin batera, azpikaldean garajeak eta lokal komertzialak ere egingo dituzte. Apurka-apurka etorkizunean Kaleberrik izango duen itxura asmatzen hasi beharko dugu. Eguzkitzaldeko etxeak, motzaneke etxeak... erabat aldatu da kaleberri denbora gutxian.

Bestalde, anbulategi zaharren jubilatuentzat egoitza egingo dutela gauza jakina da. **Vasco Europea de Construcciones** enpresari adjudikatu zitzaizkion lanak, eta dirudienez laister batean ekingo diote lanari. **Anbulategi zaharren aurrekaldera adreilu ugari** ekarri dituzte eta barrukaldean ere zerbait egiten hasiak dira. Ea ba laister batean egiten dituzten lan horiek.

**URDAIAGA****Leire Atxega****Urdaiagako txirrindularitza indarrean**

**U**rdaiagako kontuak geldirik daude momentu honetan. Ez dago zer esan haundirik. Erraza litzateke irailan egin duen eguraldi bikainaz hitzegin, edo eta Andatza aldean norbaitek perretxiku batzuk bildu dituela esatea. Baina ez noa horretara. Tarte honetan kirola izango dut hizpide.

Txirrindularitza da aukeratu dudana kirola. nola ez bada. Une honetan **Urdaiagan** ditugu **Usurbilgo bi txirrindularirik onenak**. Oa baserriko bi anaiez hitzegiten ari naizela asmatuko zenuten ja. Bai horixe, **Joseba eta Haimar Zubeldia** dira.

Hasi gaitezen zaharrenarekin. Afizionatu mailan bigarren urtea bete du aurten Olarra taldean, eta bere denboraldia bikaina izan da. Txapelketa gehienetan aurrean ibili da eta garaipenak ere lortu ditu. Azkenean, bi sari haundi iritsi zaizkio: alde batetik, datorren urtean Euskadi Fundazioarekin profesional mailan arituko da. Beste aldetik urriaren 6tik 12ra jokatuko den **Donostiako Munduko Txirrindularitza Txapelketan** parte hartuko afizionatu mailan

Joseba gazteagoa da. Jubeniletan bigarren urtea bete du eta honen ibilbidea ere bikaina izan da. Azkena, irailaren 27koa. Izan ere **Urrietan garaipena** lortu zuen. Josebak ez du Donostiako Munduko Txapelketan parte hartuko baina aurrerantzean emango du zeresanik.

Zorionak bioi Urdaiagatar guztion partetik!

# H erorrek esan



**Maria Pilar Canseco**

Eguzkitza

**O**rdaindu behar den guztia ez zait ondo iruditzen, baina hemen ordaintzen duguna justua dela iruditzen zait. Gertatzen da gauza bakoitzarengatik ez dakidala zenbat ordaintzen dudan. Erreziboa hartu eta ordaindu besterik ez baitut egiten.



**Paulina Urreta**

Kaleberri

**U**ra oso garestia da. Hemen egiten duen euri pilarekin bai behintzat. Besteak, berriz, ez direla garestiak iruditzen zait, ondo daude.



**Francisco González**

Olarriondo

**N**ahiko garestiak direla iruditzen zait. Gainera, azken aldian zergak igo egin dira. Uraren arabera izaten da, eta hau bai iruditzen zait benetan garestia dela.



**Jose Manuel Benito**

Kaleberri

**E**gia esan, ez dakit asko gai honen inguruan, etxepeko guztion artean ordaintzen baitugu. Hala ere, zergen igoera ulertzekoa da, azken batean gauzak egiteko jendearen kolaborazioa behar baita.



**Maria Pilar Pintos**

Santuenea

**O**ndo daudela uste dut. Beste toki batzuekin konparatu ezker, behintzat, hemengo zergak ez dira garestiak. Beharbada tokiarengatik izango da desberdintasun hori.



**Jokin Malvarez**

Atxegalde

**U**rarena eta estolderiarena garestiak dira, besteak ondo daude. Hala ere, beste herrietan garestia izaten da. Eta zaborra ere bai, Atxegalden behintzat ez daukagu kontenedore bat bera ere.



**Manoli Canseco**

Eguzkitza

**U**ste dut ondo daudela, azken finean denon eginbeharra da ordaintzea. Baina garestia den edo ez ez dakit. Oraintxe erosi dut pisua eta oraindik ez dut ezer ordaindu. Hemendik aurrera izango dira kontuak.



**Casilda Dávila**

Kaleberri

**N**ik uste dut orain zerbait igo egin direla zergak. Une honetan etxepeko administraria naiz eta azken faktura jaso dugunean igoera nabarmena dela iruditu zait. Zer igo den gehiena ez dakit, erreziboan denak batera agertzen baitira.



*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL

Pintxo eta bokata  
goxo-goxoak

Eguzkitza

Buru-azalar enzainketa  
Ile-apainketa

Etxebeste, 3 Tel. 37 16 85



## Atxegaldeko urbanizazioaren berrikuntza aurrera



**U**dalak Atxegaldeko urbanizazioa aurrera ateratzeko kredituaren gestioa hasia onartu du. Atxegalde osoan azpiegitura guztia aldatzea da Udalaren nahia, izan ere, aspaldiko proiektua baita hau. Baina inoiz aurrera atera ez dena.

Orain arte berrikuntza hau zatika egitea pentsatzen zen, baina orain dena batean egin nahi dute. Eta ahal bada, aurten hasi. Hori dela eta, hots, proiektua aurten hasi nahi delako, aurrekontuetan ez da orain arte diru kopuru hori jaso, eta horregatik den diru hori kredituen bidez izendatzea erabaki dute.

### Txokoaldeko frontoia eta bidearen berrikuntzak

**T**xokoaldeko frontoiaren berrikuntzak laster hasiko dira. Hasiera batean, bertarainoko bidea Udalak konpondu behar bazuen ere, azkenean frontoia konponduko duen kontratistari aurrekontua eskatu zitzaion eta lan hau bere esku uztea erabaki da.

Pasa den ekaineko uholdeak direla Udaleko brigada oso lanpetua dabil eta horregatik ezinezkoa zaie bidearen konponketa aurrera ateratzea. Bidea txukuntzeaz gain, inguruko txukuntzak ere bere gain geratuko dira.

### Ibi iraunkorren ordenantzaren aldaketa

**I**bi iraunkorren (vado permanente) ordenantza aldatzea erabaki da. Orain arte ordenantzak esaten zuten badoa emango zitzaieela gutxienez lau automobil zituzten garajeei. Baina praktikan ikusi da ez zela oso egokia, zenbait tokietan arazoak sortzen baitziren eta ordenantza ez zen behar bezala betetzen.

Beraz, azken urteetako lokal eta etxebizitzien gehikuntza ikusita, ordenantza aldatzea erabaki da. Hemendik aurrera garajea kotxe bakarraren zatitza bada ere badoa eskuratu ahal izango da.

## Intsumisioa defendatzeagatik epaituak

**T**olosako epaitegiak **EUDIMari** (Euskal Udalen Intsumituen Mankomunitatea) **kereila bat** jarri dio "ekintza deliktiboak bultzatzeagatik. Bai ordezko zerbitzu sozialaren prestazioari eta zerbitzu militarra betetzeari uko egiten dietelako". Hau dela eta, EUDIMAN dauden Udalen alkateak eta baita honen sorrerako aktan sinatutako pertsona guztiek (nahiz eta akta hori ez egon sinatua) deklaratu egin beharko dute beharko dute. Bost herrietako alkateak deituta zeuden

ostegun honetarako (Usurbilgoa ez), baina saiatuko dira ahal bada atzeratzen. Izan ere, bi eta lau urte bitarteko gartzela zigorra eta 15 hilabetezko inhabilitazioko zigorra jaso baitezakete.

Honetaz gain, Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik **Joxe Antonio Altuna** alkatea 1995. urteko juizioa itzaroten ari da, eta arrazoi berdinarengatik 1996. urteari dagokion 2. deklarazioari ere uko egin dio.



Orgelagin berria zure eskutik

**LABE-TXIKI**

Kale Nagusia, 2  
Tlf 37 33 48  
37 09 13  
**USURBIL**

**BORDATXO**  
edaritegia

**PINTXO BEREZIAK**  
**ETA AUKERA ZABALA**

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

## Inguruko zerga eta tasa merkeenak

**Z**ergak, tasak, prezio publikoak... zenbat aldiz egon ote dira hitz hauek guztion ahoetan. Zerga gehiegi ordaintzen dugula, gero eta diru gehiago kentzen digutela... honelako ustea erabat errotuta dago herritarren artean. Gobernua, Diputazioa nahiz Udalak dira zerga horiek jasotzeko ardura dutenak. **Noaua!** Usurbilgo udalak jasotzen dituenegi begira jarriko da. Zenbat ordaintzen dugu guztira? Beste udalek gureak baino gehiago edo gutxiago kobratzen ote dute? Jarraian aurkituko dituzu galdera hauen erantzunak.

Aurrena, hasteko, argitu ditzagun zerga, tasa eta prezio publikoen arteko ezberdintasunak. Askotan nahastu ohi ditugun hitzak dira hauek. Hirurek diru kopuru bat ordaindu behar dugula adierazten dute baina ez dira gauza bera. Zerga, trukean zerbitzu zuzenik jasotze gabe, herritarrek derrigorrez ordaindu beharreko kopurua da, ibilgailuen zerga adibidez. Tasa, ordea, zerbitzu zehatz baten trukean ordaintzen dena da, zerbitzuaren kostua baino gutxiago kobratzea posible izanik, uraren tasa konparazio batera. Azkenik, prezio publikoak daude, zerbitzu edo erabilpen zehatz baten truke, kostua osorik ordaindu behar dena, Udal Kiroldetia erabiltzen duten herritarrek ordaindu behar dutena esate baterako.



*Zabor bilketan Usurbilgo udala galtzen ateratzen da. Herritarrek ordaintzen duten tasak ez dira nahikoa zabor bilketa gastu guztiei aurre egiteko*

Noaua!, Usurbilgo familia arrunt baten larruan jarriko da, horrela 1997. urtean zerga eta tasen bidez udalari zer eta zenbat ordaintzen dion ikusiko dugu. 45-60 urte inguruko Joxeta Mertxe senar-emazteek eta 16, 18 eta 20 urteko hiru seme-

63100 pezeta  
inguru ordainduko  
dizkio familia  
arrunt batek udalari  
1997an oinarritako zerga eta

alabek osatuko dute familia hau. Bi etxe dituzte: Galtzaragainan 5 milioi pezetako katastro balioa duena eta 10 milioiko balioa duen txaleta Arrobitxulon. Bi etxe hauek edukitzeagatik, besterik gabe, urtero-urtero Ondasun Higiezinaren zerga ordaindu beharko dio udalari, kontribuzio edo hirilurraren zerga ize-

nez ezagutzen dena. Udal bakoitzak %0.40 eta %1.4 bitarteko portzentaia edo tipoa aukeratzen du urtero, 1997an udalaren erabakiz etxearen balio katastralaren %0.525 ordaindu behar izan da. Beraz, 5 milioiko etxearen truke (5 milioi X 0.00525) 26.245 pezeta ordaindu du balizko bikoteak. 10 milioiko etxearen zerga, berriz, (10 milioi X 0.00525) 52.490 pezeta.

Ibilgailuaren gaineko zerga

Urrian, beste zerga baten berri izan dute, ibilgailuaren gaineko zerga ordaintzeko eskutitza iritsi baitzaie. Bi kotxe dituzte, bata 8 zaldikoa eta 14koa bestea. Gipuzkoako edozein udaletan 8 zaldiz azpiko ibilgailuek 5670 pezeta + udal bakoitzak jarritako portzentaia ordaintzen dute eta 14 zaldikoek 11970 + portzentaia. Usurbilgo udalak ezarrita-

# ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Arizeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

# SALTXIPI



Txokoalde, z/g  
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94



San Esteban kalea, 1  
Usurbil

Tlf 36 00 80

ko portzentaia %1,27 denez, 7199 pezetako zerga ordaindu beharko dute lehenengo kotxeagatik eta 15.198 bigarrenagatik. **Xabier Olano** udaleko ordezkariaren esanetan, "Usurbilen ibilgailuen zerga merkea da beste herriekin konparatuz. Zubietan ibilgailu asko dituen jendea badago. Donostiako aldean bizi direnez Donostiako ibilgailuen zerga dexente haundiagoa izanik Usurbilgo helbide bat eman eta Usurbilen ordaintzen dute zerga hau".

Tasa, zerbitzuen truke

Zergak alde batera utzi eta aztertu ditzagun tasak. Hiru zerbitzu garrantzitsuenak ur hornidura, zabor bilketa eta estolderia dira. Uraren tasa kontsumoaren arabera kobratuko zaio usurbildar familia honi. Hiruhilabetean behin kontadorea pasatzen da

aurrez aipatu ditugun bi etxe-etatik, zenbat ur kontsumitu duten zehazteko. Etxeko kontsumoetan 30 m<sup>3</sup> arte metroko 47 pezeta ordaintzen da, 30etik 50era bitartean beste prezio bat du, 58 pezeta eta hortik gora prezioa igoz doa. Beraz, usurbildar familia honek urte osoan zehar 180 m<sup>3</sup>ko ur kontsumoa egin ezker 7.020 pezeta ordaindu beharko lituzke. Udal bakoitzak bere ur tarifa ezartzen du.

Zabor bilketari dagokionez 1997ko tasa etxe bakoitzeko 3.900 pezetakoa izan da. **Xabier Olanok** adierazitakoaren arabera, "zabor bilketan galtzen ateratzen da Usurbilgo Udala. Guk oinarritzko zerbitzuak emateko garaian defizitarioa izateko arazorik ez dagoela defendatu dugu beti. Ez dugu joan behar zerbitzu bakoitza osorik autofinantzazera. Horren arabera kale-

etako argiak, tarifak... kobratzen hasiko ginateke".

Azkenik, estolderia zerbitzuaren tasa ere ordaindu beharko du Joxe eta bere familiak. Estolderiaren erabilpenean kontsumitutako ur bolumena hartzen da kontutan. Honela estolderia zerbitzuaren tasa 3.510 pezetakoa da.

Azken finean, Joxe eta bere familiak 115.563 pezeta inguru ordaintzen dizkio udalari zerga eta tasa garrantzitsuenen bidez. Haez gain badaude beste zerga batzuk: edozein iharduera ekonomiko edukitzeagatik ordaindu behar den zerga, eraikuntza, instalazio eta obren zergak,

1997ko aurrekontua gainbegiratu zera esan dezakegu: udalak 200 milioi bilduko dituela zergekin eta 130 milioi inguru tasekin.

## 1997. urteko zerga eta tasen zenbatekoa inguruko herrietan

Udala	Etxearen balioa	Tipoa (1997)	Ordaintzeko	Autoa (8 zaldi)	Autoa(14 zaldi)	Ura (180m <sup>3</sup> )	Zaborra	Estolderia	Guztira
Aia	5 milioi	0.6	30000	7305	15421	8000	6000	800	67526
Astigarraga	5 milioi	0.62	31000	7404	15632	15175	10370	3136	82717
Donostia	5 milioi	0.588	29400	8002	16892	9781	5700	5429	75204
Lasarte	5 milioi	0.67	33500	7979	16845	14520	4010	6244	83099
Orio	5 milioi	0.5	25000	7958	16801	13260	4800	3200	71020
Tolosa	5 milioi	0.75	37500	8279	17479	12300	4475	4182	84215
Urnieta	5 milioi	0.6	30000	7797	16460	9180	4350	2754	70541
Zarautz	5 milioi	0.7	35000	7337	15489	7020	5922	1404	72172
Usurbil	5 milioi	0.525	26245	7199	15198	7020	3900	3510	63073

Taula hau egiteko inguruko herri ezberdinak hartu ditugu kontutan. Bertan ikus daitekeenez usurbildarrok ordaintzen ditugu inguruko zerga eta tasa merkeenak.

kalezarra  
karrozeria



Txapa konponketa eta kotxe pin

Ugaldea industrialdea  
USURBIL

Tel. 37 26 09



TABERNA



Usurbilgo txilborrean  
herritarren topaleku

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17

SERIGRAFIA  
T A n P O G R A F I A



Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRA GARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

## Arratzain baserriko sagardoa denetan onena

**A**itzaga Elkarteak antolatuta **Usurbilgo Sagardogileen arteko AIII. Sagardo lehiaketa** egin zen joan den irailaren 20an. Aialdenea, Arratzain, Berreiarza, Gorostidi eta Olanonea baserrietako sagardoa dastatu eta epaitzeko aukera izan zuten Aitzagara afaltzera joan ziren guztiek. Bost sagardoak bitan dastatu zituzten, makailoarekin lehendabizi eta kostillarekin ondoren. Azkenean, eta afarikide guztien puntuazioa batu ondoren, **Arratzain baserriko sagardoa izan zen onena.**

Han bildutako esanetan, maila ona erakutsi zuten bost sagardoek, eta batetik besterako aldea ez zen oso handia izan.



## Postetxeko egoitza erre dute



**P**asa den ostiralean, hilak 26, eguerdiko 12ak aldera, lauzpabost pezegagunek **Correoseko egoitza erre** zuten. Bertan gasolina bota eta koktel molotoven bidez eman zioten su. Bertako langile bat suitzalgailua hartu eta sua itzaltzen saiatu zen, baina eginahal horretan erredurak jasan zituen beso batean. Hala ere, ezin izan zuen ezer egin bulegoa salbu gordetzeko. Minutu gutxira DYAKO furgoneta bat etorri zen, eta honen atzetik suhiltzaileak eta ertzantza. Eguerdiko orubata aldera, berriz, Arkaitz Lizeaga 16 urteko gaztea atxilotu zuen ertzantzak gertatutakoarekin zerikusia zuelakoan. Hernanira eraman zuten eta ordu batzuk beranduago kalera irten zen inolako kargurik gabe. Ekintza Gaizka Gaztelumendi eta Jose Migel Bustinzaren hilketagatik protestatzeko burutu zuten. Erasotzaileak zauriturik ez egoteko ahaleginak egin zituztela adierazi zuten, eta bertako langilea "*sua itzaltzen heroia*rena egiten ibili zelako" zauritu zela zehaztu zuten.

## Gure arbasoen aztarnen bila Ekaingo haitzuloan

Irailaren 26an **usurbildar talde bat**, tartean zeuden bi japoniarrekin batera, Zestoako hirigunetik gertu dagoen **Ekaingo haitzuloan** izan ziren. Xabier Peñalbar Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea izan zuten gidari. Txango txiki honetan parte hartzeko aukera izan zutenek milaka urte dituzten irudi zoragarriak ikusteko zortea izan zuten, hala nola, zaldiak, bisonteak, basahauntzak, oreinak, hartzak eta izokin bat. Haitzuloa ikusteko aukerak urriak direnez, joan zirenek arbasoen aztarna zahar hauek ikusteko parada ondo aprobetxatu zuten, eta gustora gainera.



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin



Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



# TXIRIBOGA

TABERNA

*pintxoak eta bokatak*

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

**USURBILDIK ERNIORA**

Iraileko azken igandea izaki, Usurbildik Erniorako irteera egin zen joan den hilaren 28an. **25 usurbildar** inguru abiatu ziren goizean-goiz Erniorantz. Puelatik barrena, Zioztzako langa pasa eta Andazarrate atzean utzi ondoren **3 ordu eta 45 minutu inguru** behar izan zituzten Zelatun aldera iristeko dauden 16 kilometroak egiteko. Eguraldiak ere lagundu zuen, giro ederra egin baitzuen. Horregatik egongo zen hainbeste jende Zelatunen.



Iraillaren 27an ospatu zen Gudari eguna Euskal Herrian eta Usurbilen ere hildako gudariak gogoan izan ziren. Ibilaldi-omenaldia arratsaldeko 7.00etan irten zen frotoitik. Ugaldean "**Nazkaz**", Kalezarren "**Arrantzale**" eta udaletxe aurrean "**Usurbil**" omendu zituzten. Lore sorta bana eskaini zitzaizen txalapartarien, dantzari eta txistularien laguntzaz eta bertsolariak omenduak gogorarazi zituen.

**LAU T'ERDIKO PELOTA TXAPELKETA**

Aitzaga Elkartek lau garren urtez jarraian antolatzen duen txapelketa martxan da ja. Urriaren 1ean amaitu zen izen-emateko epea eta momentu hartan 13 bikotek osatzen zuten partaideen zerrenda. Gogora dezagun txapelketa hau **herriko federatugabeentzat** izateaz gain, pelota biguinarekin jokatzen dela. Iaz **Koldo Lertxundi** eta **Inaxio Arruti** izan ziren txapelkunak, aurrean... ikusiko dugu.



**An**botora joan eta Urkiolako harriari bueltak ematen bukatu. Horixe da **Andatza Mendi Elkartek** joan den irailaren 20an antolatutako irteeraren laburpena. Goizean goiz 12 mendizale abiatu ziren Bizkaia aldera Anbotoko Mari begiz joko zutelakoan. 1296 metro dituen Anbotoko gaina zapaldu zuten, baina lainoak zapuztu zuen lamia ikusteko asmo xumea. Ondoren, jeitsiera eta mutilzahar nahiz neskazaharrentzako gozamina: Urkiolako harriari birak emateko aukera. Laister ikusiko dugu San Antoniok miraririk egiten duen ala ez.



**Ar**rillagaeneko (Potxoneko) **makalaren enborra** da lurrean ikus daitekeen enbor hori. Herriko ordezkariak, ezbeharren bat gertatu baino lehen makal hau botatzea erabaki ondoren joan den irailaren 29an moztu zuten. Horretarako grua handi bat ekarri behar izan zuten, motozerraren bidez, lehen-dabizi goiko adarrak kendu, eta pixkanaka-pixkanaka goitik behera zuhaitz hau botatzeko. Goiz osoan egon ziren ikusleen artean zen orain dela 45 urte inguru bere aitarekin makala landatu zuen Motzaeneko **Mikel Arriaga**.

ZENDOIA - ENEA



TABERNA



Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaietakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25



**kafe berezia**

ETXE-ALDIA, 1  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

**PATRI**

JATETXEA

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia,6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

## Kanpotarrak Usurbilgo pelota txapelketan

**A**zken bi hilabete luzetan pelota partiduak ikusteko aukera ezin hobea izan dute usurbildarrek. Uztailean hasi zen afizonatu eta jubenil mailako txapelketa eta ostegun, ostiral eta larunbat ilunabarretan pelota hotsa izan da nagusi pelotalekuaren inguruan.

Ostiral honetan, urriak 3, emango zaio amaiera txapelketa honi. Jubenil mailan 32 bikote lehian jardun ondoren **Etzaniz (Azkoitia)-Elola (Lasarte)** eta **Laskurain (Soraluze)-Bengoetxea (Eibar)** izango dira aurrez-aurre. Azken hauek **Izagirre-Kastresana** usurbildar bikotea gainditu zuten finalerdietan. Afizonatu mailan, aldiz, **Garate-Txikito IX** iazko Azkoitiako txapelkunek, **Bizente-Gastesi** donostiarren aurka jokatu dute.



**Enrike Huizi** antolatzailea gus-tora zegoen txapelketak eraman duen bidez galdetu genionean. "Eguraldia lagun jende asko bildu da asteburue-ro, eta hori garrantzitsua da. Hala ere ezin ahaztu atzetik lan handia dagoela. Horregatik,

eskerrak eman nahi nizkieke udalari, Usurbilgo sagardotegiei eta Peña Pagola eta Andatzpeko jendeari. Eta nola ez, errifa saltzen lan handia egiten duten **Joxe Mari Izagirre** eta **Jexux Mari Zulaikari** ere eskerrak eman nahi nizkieke".

## Antonio Agirre eta Julian Arrozpideri omenaldia



Joan den irailaren 28an ospatu zen Hernaniko Jauregin segalari egunaren laugarren ekitaldia. Bertan, 54-57 urte bitarteko 12 segalari omendu zituzten. Tartean ziren bi Usurbildar. Alde batetik, Aian jaio baina aspaldi honetan Usurbilen bizi den **Antonio Agirre** eta bestetik **Julian Arrozpide**. Garai batean segalari moduan aritu ondoren orain jaso dute beren omenalditxo. Ziur aski oraindik ez zuten galduko segan egiteko ohitura hura. **Noaia!** ere zorionak eman nahi dizkie bi segalari omenduei.

**PORTUARRAK**



**ITURGINDEGIA  
BAINUKO  
ALTZARIAK**



Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99



**ZUMET A  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

**ZUMET A MENUAK**

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientz salada hozber oatrufa zaporez
- Zapoatzangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizunapatata pur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxeko azken buruko endegustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

**JUAN TXO**

**Burdindegia**



Kale nagusiangaude,  
10. zenbakian!

## Artea pintzeladaz lantzen

**H**asiera batean Udarregi ikastolako eskulangintza ikasgaia Pintura eta Marrazkigintza eskolarekin banatu bazen ere, Mihixe Arte Eskola 1978 inguruan jaio zen. Honez geroztik bere bilgunea beti Udarregi Zahar etxea izan da.

Nahiz eta bertako ikasleriaren gehiengoa Usurbil eta Aginagakoa izan, Lasarte, Orio, Zarautz, Hernani, Donostia eta Hondarribiko jendeak ere parte hartu izan du gure klaseetan. Ezin da esan perfil zehatzik dutenik gure ekintza honetan parte hartzen duten pertsonak; nahiz eta arte plastikoenganako sentsibiltatea eta afizioa beharrezkoak izan.

Badira batzuek, txikitatik gaitasuna eta interesa erakusten dutenak. Askotan gai honen inguruko ikasketak aukeratzen dituzte: Diseinua, Arte Ederrak, Telebista. Beste batzuek bizitza osoan zehar lagunduko dien denborapasa kreatibo bat garatu nahi izaten dute. Arte piktorikoaren oinarritik, ikasketa hauek Artea ezagutzeko balio dute.

Klaseetara etortzen diren hel-

duentzat, gaztetan jaio baina garatu ezin zen zerbait berreskuratzea suposatu du. Garai haietan ez zegoelako nora joanik edo beste arrazoiak medio. Inoiz ez da berandu. Izan ere, ikasten hasi diren pertsona helduek maila ederra lortu dute. Honek suposatzen duen poza eta errealizazio pertsonala barne.

Mihixeren helburua ez da pintura profesionalak sortzea. Helburua maila altu bateraino erakustea da, eta beste zenbait kasutan perfektionamendua lantzea. Gaur egun lau maila erakusten dira Usurbilgo ikasgelan eta Aginagako bietan.

Maila desberdinak

Aginagako lehen maila gazteena da eta bigarrena helduena. Bi hauek **Amaia Kasasolak** ematen ditu. Usurbilen gazteentzat bi maila daude eta bat haurrentzat. Hiru klase hauek Amaia Kasasolak ematen ditu. Laugarren maila helduentzat da eta **Arrastalu, Carlos Zabala** da irakaslea.

Haurren plastikaren ikuspuntua ez da helduek duten bera.

Haurren sentsibiltatea hain da handia, fluxu horri jarraituz soilik lortu baitaiteke Pintura eta Marrazkiaren teknika eta materialak erakustea.

Eskuaren hezkuntzak haurren oreka eta psikomotrizitatean lagundu egiten du. Kontakizunak (relato), konposaketak eta espazioaren zentzua, berriz, balore positiboak dira.

Santixabeletan ikasleen kurtso amaierako erakusketan, haurrak izaten dira pintura merkatu txikia antolatzen dutenak. Bertan saltzen dira ikasturtean zehar egindako lanak. Era honetan Artearen berezko errealitate batekin erlazionatzen dira.

Klase baten erdian ikasgelan sartzen garenean deigarria izaten da (oleo eta trementinaren usainaz gain), lanerako dagoen giro ixila eta alaia. Izan ere, pinturaren ikasketak lan intelektual eta kontzentrazioa handia eskatzen baitu. Artearen inguruan gazte eta helduen artean sortzen den erlazioa, dudarik gabe, pribilegiatua da.

**Idoia Torregarai**



*Haur jantziak*



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43

TABERNA-JATETXEA



**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

LIZARDI

LIBURUDENDA

Eskolarako materiala

Maila guztietako  
testu liburuak

K/ Etxebeste, 1  
Tel.: 36 11 15

USURBIL  
(Gipuzkoa)

## Museoko kirola bihur ez dadin

**E**rrebotea gaur egun, Zubieta eta Billabonan besterik ez da jokatzeko hego Euskal Herrian. Iparraldean aldiz, indar haundiko kirola da. Baina nahiz eta aukera izan, gutako gutxik ezagutzen du joko hau.

**Joxe Antonio Sarasola**, errebote jokalariek halaxe azaltzen du: "*Gerra zibila amaitu ondoren, hegoaldean bakarrik bi toki hauetan irauin zuen, beharbada afizio haundiena zegoelako bertan. Gerra aurretik, izugarrizko arrakasta zuen Gipuzkoan; horrelaxe adierazten dute hainbat herrian dauden errebote plazen arrastoek*".

Iparraldean maila haundia

Iparraldean kirol hau hain indartsua izatearen arrazoia honela azaltzen digu: "*Iparraldean erreboteak arrakasta haundia dauka, baita maila altua ere. Kirol elkarteak serioagoak dira erreboteari dagokionez. Talde haundienak iparraldeko jokalariek onetsuenak hartzen dituzte eta lanbide bat ematen diete bertan gero entrenatzen. Egoera hau pentsaezina da hemen*".

Gaur egun, Zubietako Pilota Elkarteak, errebotean dabiltzan haur, gazte eta helduek 35-40 fitxa inguru dituzte, inoiz baino gehiago. Kopuru hau ikusita, epe motzean etorkizuna salbu dago errebotearentzat. Jokatzeko mailari dagokionez,

berriz, Joxe Antoniok zera dio: "*Gure maila ezin da konparatu iparraldekoekin, baina maila polita dugu, erdi parekoa*".

Txapelketa ugari

Errebote jokalariek hiru txapelketa jokatzeko dituzte urtean zehar. Lehena Zubietan. Udan jokatzeko dute eta finala Santiotan izaten da. Txapelketa honetan jokalariek gazte eta helduek jokatzeko dute batera; era honetan gazteek jokatzeko ikasten dute. "*Txapelketa honek izaten du saltsa haundiena*".

Udaberrian, berriz, "Liga Vasca" delakoan parte hartzen dute iparraldeko 2. mailan. Eta azkenik, "Endika Abril Oroitzapena" txapelketan parte hartzen dute. Gipuzkoako Federazioak eta hegoaldeko bi errebote taldeek antolatzen dute hau eta bertan iparraldeko eta hegoaldeko talde onenek jokatzeko dute. Nahiz eta Zubieta oso haundia ez izan, bi talde

ditu bertan. Zubieta I taldea **Zaldia I, Zaldia II, Aizpurua I, Seguroa** eta **Arregik** osatzen dute. Zubieta II, berriz, **Aizpurua II, Amenabar, Bengoetxea, Iparragirre** eta **Gartziak**.

Aurten, txapelketaren finala Zubietan jokatzeko da. Eta hori ospatzeko, Zubieta Pilota Elkarteak festa bat antolatu nahi du jendea hurbil dadin. Horrekin batera, komunikabide desberdinekin ere harremanetan jartzekoak dira.

Epe luzerako eginbeharra, aldiz, haurrak, gazteak eta gurasoak motibatzea da. Joxe Antonioren hitzetan, "*elkarteak urtea bete du eta oraindik azpiegitura sendotzen ari gara. Bazkide berriak egiten ari dira eta hori bultzatu nahi dugu. Nire ustez, elkarteak ireki egin behar dugu; herrikoia izan behar du erreboteak aurrera egin dezan eta museoko kirol bezala geratu ez dadin*".



"Endika Abril Oroitzapena" txapelketaren finala Zubietan jokatzeko da urriaren bukaeran.

**BITXITEGI**  
**ARREGI**  
**ORDUKARI**



Kale Nagusia, 2  
Tlf. 36 40 58



**Elkaitze**

**Bideo eta Argazki**

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

**Barruko arropa-likak eta etxeko arropak**

Aritzeta kalea, 1  
telefonoa: 36 17 87



# Lehiaketa

Oraingoan balkoitik lurrera begira jarri behar-ko duzue estolda hau ikusi nahi baduzue. Baina ez gara ikustearekin konformatzen, non dagoen ere jakin nahi dugu.

## Non dago estolda hau?

Usurbilgo txokoren batean dago, hori bai. Txoko hori zein den baldin badakizu, bidali erantzuna **Noaua!**ra, Kale Nagusiko 37. zenbakira. Erantzun zuzenen artean zozketa egingo dugu eta bi pertsonak **Bordatxon** afaltzeko aukera izango dute. Animatu eta zorte on!



Anaia Patrinera eta **Mikel Bengoetxea Antxetara**. Oporren bueltan gustora hartu du saria eta **Antxeta jatetxean** ere gusto handiz prestatuko diote afaria. On egin!

Oso ondo! 13 erantzun jaso ditugu eta guztiok asmatu duzue balkoia non dagoen: Oiardo kiroldegian.

Erantzun guztien artean egindako zozketan oraingoan **Jose Gurutz Bengoetxea** izan da zorteduna. **Patri jatetxean** afari ederra egiteko aukeran izango da beste lagun baten konpainian. On dagizuela!

# Komikia



Usurbilgo EHE

*Laurok*  
Liburuak eta zuzenak

ALPERROBURU KALEA-BEHEA  
20170 USURBIL TLF 36 34 48

# MAHUKA



GAZTE DENDA  
Modako arrop  
neguaren atari

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

# L6 T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34  
Usurbil

☎ 36 57 42

## URRIAK 6 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

## URRIAK 11 larunbata

- **1955. urtean jaiotako usurbildarren afaria.** Gaueko **21.00**etan **Arratzaingo sagardotegian.** Informazio gehiago nahi baduzu, deitu Maribi Arrospideri: 36 58 35 edo Josune Aranbururi: 37 26 46. **Komeni da izena aurrez ematea.**
- **Gure Pakea Zahar egoitzak Tarazonara** (Araba eta Aragoiko mugan) antolatu du **bidai**a. Irteera goizeko 7.00etan udaletxe aurrean.

## URRIAK 13 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

## OHARRAK

- ✓ **Mihixe Pintura Eskolako** ikasurtea urrian hasiko da; astearte, ostegun eta larunbatetan. Informazio gehiago Udarregi Zaharrean edo 36 66 39 telefonoan.
- ✓ **Bota Punttuba** bertso eskolaren ikasurtea hasi bada ere, inork izena eman nahi badu oraindik garaiz dabil. Azaldu Udarregi Zaharreko egoitzara.
- ✓ **Helduentzako Heziketan** parte hartu nahi baldin baduzu, matrikulatzeko orduak hauek dira: **astelehen** eta **asteazkenetan** goi-



Astelehen guztietan ohi den moduan, oraingoan ere **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa egingo da errotondan arratsaldeko 20.00etan.

zeco **10.00**etatik **12.00**etara eta **astearte** eta **ostegunetan** arratsaldeko **17.00**etatik **19.00**etara **Ageri-alde ikastetxean.**

- ✓ **Katekesiari, urriaren 6tik 10era** doan astean emango zaio hasiera. **Izena emateko epea, berriz, irailaren 30 eta urriaren 1a** izango da parroki etxean. Goizetan **10.00**etatik **11.30**etara. Arratsaldetan **16.30**etatik **18.30**etara.
- ✓ **Urrian tailerra irekiko** da Etxe Aldian. Bertan, zur tailaketa, marrazkia eta pintura, errestaurazioa eta esku lanak landuko dira. Deitu **36 47 83**. Pelex edo Susana.
- ✓ **Ingeleseko klaseak.** Maila guztiak eta talde txikietan. Deitu 36 29 11.
- ✓ **Pisua alokatzeko** Kaleberrin. Interesatuok deitu 37 14 95 telefonora.
- ✓ **Garajea salgai** daukat

Kaleberrin. Interesatuok, deitu 36 41 80 telefonora.

- ✓ **Pisu bat alokatzeko** Bilboko alde zaharrean. Unibertsitateko autobusetik gertu dago. 37 31 17 Uxo.
- ✓ **Pisua salgai** da Santuenean. Deitu 36 04 46.
- ✓ **Etxebizitza salgai.** Sukaldea, sala, hiru gela eta bainugela eta komuna. Ganbara, garajea eta garajerako traste-gela txikia. 37 02 75 telefonoa.
- ✓ **Flauta trabesera** bat erosiko nuke. 36 13 12 telefonora deitu iluntzetan.

## LANPOSTUAK

- ✉ **Elgoibarko Udalak administrari laguntzaile** bat behar du. Eskatera epea urriaren 2an bukatzen da. Informazio gehiago Elgoibarko udaletxean edo GAOko 179. zenbakian.

## CAJA POSTAL-en INBERTSIO FONDOAK

Harpidetu zure Caja Postal- Correos bulegoan

eta bi ordulari oparituko dizkizugu



ARGENTARIA



Zure iritzia garrantzitsua da **Noaua!**rentzat. **Bete inkesta!**

BAZKARIAK  
ETA AFARIAK

Santuenea 23  
Tlf. 36 27 34



# Kirol agenda

## URRIAK 3 ostirala

- **Pelota txapelketako finalak.** Jubenil mailan: **Etzaniz** (Azkoitia)- **Elola** (Lasarte) vs. **Laskurain** (Soraluze)- **Bengoetxea** (Eibar). Afizionatu mailan: **Garate-Txikito IX** (Azkoitia) vs. **Bizente-Gastesi** (Altza). Frontoian, gaueko 22.00etan.

## URRIAK 5 igandea

- **"Endika Abril Oroitzapena" Errebote txapelketa:** **Zubieta P.E. II- Avr. Bayonnais** goizeko 9.30etan. **Zaharrer Segi-Zubieta P.E. I** goizeko 11.30etan Zubietako plazan.
- **Futbol** partidua erregional mailan (M): **Usurbil F.T.- Texas Lasartearra.**

- **Futbol** partidua kadete mailan (M): **Usurbil F.T.- Urnieta K.E.B.**

- **Futbol** partidua (N): **Ostadar K.T.- Usurbil F.T.**

- **Futbol partidua** jubenil mailan (M): **Usurbil F.T.- Orio'ko F.T.**

## URRIAK 12 igandea

- **"Endika Abril Oroitzapena"**

**Errebote txapelketa:** **Kanboarrak- Avr. Bayonnais** goizeko 9.30etan Zubietako plazan.

- **Futbol** partidua (N): **Usurbil F.T.- Urretxu- Zumarraga Iks.**

- **Futbol partidua** jubenil mailan (M): **Zarautz- Usurbil F.T.**

Euskal Herriko selekzioari bai! lemapean txirrinda ibilaldia egingo da Donostian, urriaren 4an goizeko 11.00etan. Usurbildik talde bat joatekotan da. Deialdia egingo omen dute.



E maitzak

### FUTBOLA

#### Irailak 20-21

Usurbil- Gwendolyne, 2-1 (err.mut.)  
Usurbil- Tolosa, 1-6 (kadeteak, mut.)  
Usurbil- Elgoibar, 1-2 (1.jubenilak, )

#### Irailak 28-29

Usurbil- Arrasate, 2-0 (neskak)  
Arrasate- Usurbil, 0-2 (1. jubenilak)  
Groseko-Usurbil, 5-2 (erregionalak)

### ESKUBALOIA

#### Irailak 28

Pasaitarra- Usurbil, 21-29 (2. nazionala)

### PELOTA

#### Irailak 18

##### Gipuzkoako pelota liga

Andatzpe Peña Pagola- Boskotarrak 22-8 (jubenilak. Izagirre-Olaizola)

Andatzpe Peña Pagola- Arrasateko 22-12 (junior. Ibarreta II- Zarautz)

#### Irailak 25-26

Andatzpe Peña Pagola- Arrasateko 22-6 (jubenila. Izagirre-Olaizola)

Andatzpe Peña Pagola- Loiolatarra 22-14 (junior. Matxain- Zarautz)

#### Irailak 26-27

##### Usurbilgo Pelota Txapelketa

Etzaniz/Elola vs. Belauntzaran/  
Altuna 22-4 (jubenilak)  
Laskurain/Bengoetxea vs.

Izagirre/Kastresana 22-12 (jubenilak)

Garate/ Txikito IX vs. Esnal/Zabala 22-15 (afizionatuak)

Bizente/ Gastesi vs. Mikelperizena/  
Zilbeti 22-21 (fizionatuak)

##### Errebotea

#### Irailak 21

Avr. Bayonnais 2 vs. Kanboatarrak 11-3

Noizbait vs. Zarrer Segi, 13-13

Behar Zana vs. Avr. Bayonnais, 7-13

Kapito Harri vs. Zubieta 1, 13-5

#### Irailak 28

Avr. Bayonnais 2 vs. Behar Zana, 6-5

Kapito Harri vs. Noizbait, 13-13

Zaharrer Segi vs. Kanboatarrak, 3-13

Avr. Bayonnais vs. Zubieta 2, 13-12

# BAZKIDE TXARTEA

## 5.000 PEZETARA URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoa: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrantea (20 digito): \_\_\_\_\_

HAMABOSTEKARRIA

# noaua!



SAN PRAIXKU JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU AGINAGAR GUZTIOI!

# JUAN MANTEROLA E HIJOS

*Angula-haztegiak*

Galardi etxea,  
z/g  
AGINAGA

36 11 16  
☎ 36 20 52

Fax 37 02 63

## passport

INGELES A ETA FRANTSESA

Uistin 11- 1.B  
LASARTE-ORIA  
Tel. 36 28 73



*Astean bi ordu: 4.900 pezeta hilero*

*Lasartera joateko garraio zerbitzua dohainik*



- ✓ Talde txikiak: gehienez 8 ikasle
- ✓ Eskolarako talde bereziak: UBI, BBB, selektibitatea
- ✓ PET, First Certificate eta Proficiency azterketetarako prestaketak
- ✓ Galdutako orduak beste ordu batean dohainik errekuperatzeko aukera